

DEBAGOIENA ESQUALDEKO KIROL TXARTELA ETA IGERILEKU ZERBITZUA

Dakizunenez, Eusko Jaurlaritza Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Ekintza Fisikoa eta Kirol Departamentuak sustaturiko *“Kirol Txartela”* ekimenari atxikituta dago Oñatiko Udala, Debagoiena Mankomunitatearekin batera, 6 hilabeteko zerbitzu elkartruke esperientzia piloto batean.

“Kirol Txartela” abonoaren bitartez eskualdeko igerilekuetara joan ahal izan da abonatua urtarrilaren 2tik joan den martxoaren 13ra arte, SARS COVID-19 birusak eragindako larrialdi egoera ezarri arte, hain zuzen ere. Ondoren, behin behinekoz, eta alarma egoera altxatu arte eten egin zen zerbitzua eta igerilekuak itxi. Ohikotasunera deseskalatze prozesuan, eskualdeko kiroldegiak eta igerilekuak hilabete honetan irekiko dituzte ateak, modu mailakatuan, eta betiere, legeri eta araudi sanitarioak zehazten dituzten baldintza eta neurri prebentiboekin. Zentzu guztietan, zerbitzuan inpaktu handienetarikoa izango duen neurri bat edukiaren edo aforoaren murrizketa da, zalantzarik gabe; %40-50 artean murriztu behar baita ,gutxienez, deseskalatze fase honetan. Zerbitzua nola eta zein baldintzetan ematen hasi zehaztu berri dute Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako Udalek. Horrela bada, litekeena -oraindik erabakirik ez da hartu Mankomunitatean- da “Kirol Txartela” zerbitzua bertan behara uztea eskualdeko Udalek.

Horren aurrean, eta nahiz eta “Kirol Txartela” bertan behera utzi eta zerbitzua eten, abonatu hori duten Oñatiko herritarrei beraien kiroldegietako igerilekuetako zerbitzua erabiltzen uztea eskatu berri die Oñatiko Udalak, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzako Udalei. Eskaerak landu eta erantzuna jaso bitartean ez dugu jakitzerik zerbitzu horiek erabili ahal izango dituen Oñatiko abonatuak, eta zein baldintzetan. Jakin bezain laster jakinariziko dugu.